

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **163/2019 Foru Agindua, ekainaren 3koa, zeinaren bidez baimentzen baita María Ángeles Sopelana Garcíaren behin-behineko izendapena Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanposturako**

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 188/2019 Erabakiak ebatzi zuen gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko 2018ko lehiaketa bateratua.

Foru erabaki horrek Carmen Rojo Pitillas andreari esleitu zion Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostua, eta maiatzaren 3an jabetu zen lanpostuaz.

Hala ere, maiatzaren 7ko 131/2019 Foru Aginduaren bidez, funtzionario hori Aiarako Udaleko idazkari lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko izendatu zen eta, beraz, Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostua bete gabe dago gaur egun.

Hortaz, korporazio horretako karrerako funtzionario María Ángeles Sopelana Garcíaren behin-behineko izendapena proposatzen du.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Ángeles Sopelana Garcíaren behin-behineko izendapena egitea, Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, 2019ko maiatzaren 8an hasi eta lanpostu hori betetzen den arte martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduren baten bidez, edo lanpostu horren titularra lanpostura itzultzen den arte.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Erriberabeitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 3a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**